

Finlandiatik Urnietara, bizikletaz

Joseba Errazkin Bermejo gazteak abentura kutsuko zeharkaldia egin du European barrena, sorterrira itzultzeko. Bidaiaren berri eman dio Aiurriri / 2-3

**Ezohiko pleno
katramilatsua
Andoainen,
Etxeberrietako etxeak
direla medio** / 5

**Andoaingo hainbat
gizarte eragilek
San Juan jaien
gaineko hausnarketa
helarazi dute** / 4

**Urnietako EH Bilduk
Saletxeberri Berriko
egoerari buruzko
iritzia plazaratu
du** / 15

**San Fermin
txapelketako finala
jokatuko du Ansa
urnietarrak,
hilaren 15ean** / 15



Hurrengo geldialdia, Etxeberrieta

Kaletxikiko eta Karrikako jaien atzetik datoz Etxeberrietakoak / 8-9



FINAL HANDIA

UZTAILAK 15 OSTIRALA / 18:00ETATIK AURRERA
GALARRETA JAI ALAI (HERNANI)

ANSA II · AZPIROZ VS **EZKURRA II · JUANENEA**

GOIKOETXEA V · BARRENETXEA IV vs ALDABE · MARTIRENA





Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Hiru mila kilometro baino gehiagok banatzen dituzte Vierumäki (Finlandia) eta Urnieta. Joseba Errazkin urnietarrak herri txiki horretan egin zuen Erasmus programa bederatzi hilabetez (Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua). Bada, ikasturte osoko bidaia aberasgarri hori nahikoa ez eta esperientziari amaiera gozoa ematea erabaki zuen: Vierumäkitik etxera, Urnietara, bizikletan itzuli zen. 45 egun eta zortzi herrialde: Finlandia, Suedia, Danimarka, Alemania, Holanda, Belgika, Frantzia eta Euskal Herria.

Erasmusean erabaki eroak hartzen omen ditu jendeak. Horixe zurea: Vierumäkitik Urnietara, bizikletan.

Modu batera edo bestera, bederatzi hilabetezko esperientzia hasi aurretik, jada, banuen buruan nola eman amaiera boro-bila bidaia luzeari. Itzulera bizikletan egiteko ideia hemengo Erasmus programako koordinatzailearekin hitz eginez otu zitzaidan. Izan ere, bere lagun batek ere antzeko zerbait bat egin zuen Erasmus bukatzear. Hala, banuen ideia buruan, eta, Gabonetako oporretan, asmoarekin aurrera egitea eta bidaia diseinatzea erabaki nuen. Despedida progresiboa eman diot Erasmusari; izugarritzko esperientzia izan da.

Oso bestelakoa den errealtate batean bizi izan zara, gainera, ikasturte oso batez.

Herri txiki-txiki bat da Vierumäki, eta Errendimendu Handiko Zentro bat eta unibertsitatea ditu. Kanpin batean bizi ginen hiruzpalau lagun, inguruan supermerkatu gabe. Lleidan ikasten dut nik, eta hango lagun batekin joan nintzen. Bertan, jende gehiagorekin elkartu ginen.

Ez du gure egunerokoarekin antzik. Oso isolatuta bizi ginen, baina polita izan da. Abuztuan joan nintzen, eta, lehen astetik aurrera, txamarra potoloekin ibili gara. Azarotik aurrera, apirila bitartean, gutxi gorabehera, elurra izan dugu. Eta, argitasunari dagokionez, urteko sasoi jakinetan, arratsaldeko 15:00etan, ilundu egiten zuen. Bertakoei horrek asko baldintzatzen die beren egunerokoa. Europa barruan gaude, baina oso bestelako bizimodua daukate. Egokitu egin behar izan gara, hortaz.

“Neure buruarekin egoteko tartea izan da bidaia”

JOSEBA ERRAZKIN BERMEJO BIDAIA

Bizikleta gainera igo eta 45 egunez pedalei eragiten aritu da urnietarra. Finlandiako Vierumäki herrixkatik Urnietara egin du jauzi, hainbat herrialde zeharkatu ondoren



Zortzi herrialde zapaldu ditu bizikletan. AIURRI

Bidaia ekin aurretiko unean kokatuta, nola prestatu horrelako esperientzia bat?

Prestaketa dextente eskatu zidan bidaia, aldeztu aurretik, eta kalkulua ondo atera zait. Egia da geldialdi gutxiago egitea aurreikusten nuela. Lehenik eta behin, Google Maps aplikazioa ireki eta Urnietara bizikletaz iristeko aukerarik ote dagoen begiratu nuen: 3302 km. Egunez zenbat kilometro egin nahi nituen kalkulatu nuen, ondoren, eta horren arabera bidaia egun-kopurua jakin nuen. Desnibelak eta geldialdiak egiteko tokiak ere gutxi gora-behera kokatu nituen, baita GPSarekin, Google Earthen bidez, bideak sortu ere. Alabaina, ez nituen egun guztiak prestatu, bidaia zeko askotariko metodoak erabili nahi nituelako.

Sentsazioen arabera bidaia egin dut. Lehen bi asteetan, GPSarekin aritu nintzen. Ondoren, inprobisazioari bide eman nion, eta, azken egunetan, mapa erosi eta iparrorratzarekin aritu nintzen. Zenbaitetan, bide laburra aukeratu ez arren, izugarri gozatzeko aukera bermatu dit azken modu horrek. Zatiaren bat edo beste ferryan ere egin dut, bideak hala eskatuta.

Lehenagotik ibili al zara bizikletan distantzia luzeak egiten?

Txikia nintzela, txirrindularitza zalea nintzen, eta gustuko dut; Lleidan, adibidez, bizikleta egunerokoan erabiltzen dut. Halere, orain egin dudana distantzia ez dut sekula egin, inondik inora ere! Egunez 70-80km egiten nituen, batzuetan, alegia, bostpasei ordu, gehienez jota.

Zer sartu zenuen motxilan?

Aitaren lagun bati laguntza eskatu nion, horrelako bidaia asko egiten dituelako berak. Ahalik eta pisu gutxiaren eramateko gomendatu zidan. Maiatzaren 18an oraindik elurra desagertzen ari zen, eta banekien ibilbidearen zenbait tokitan hotz handia egingo zidala. Txapelak, termiko luzeak, pare bat txamarra, zakua, esterilla, kanpin-denda, sukaldatzeko oinarritzako baliabideak, udako arropa eta maillot bakarra. Oinarritzakoa hartu nuen,

"HAUSNARTZEKO DENBORA LUZEA IZAN DUT, BAITA EZER EZ PENTSATZEKO ERE"



Finlandiatik hasi zuen bidaia. JOSEBA ERRAZKIN



Savonnières, Frantzia. JOSEBA ERRAZKIN

baina gehiegi izan zen hori ere! Bi motxilarekin abiatu nintzen eta, horietako bat apurtu egin zitzaidan; ondorioz, beste bat erosi behar izan nuen. Alabaina, beste hori ere hautsi egin zitzaidan. Horrela, Pariseko geldialdian, bertan utzi nuen, zuzenean, etxera bidaltzeko.

Non gelditu zen soinean eraman ez zenuen hori guztia?

Lagun batek ekarri zidan. Beno, Katalunian daukat maleta, eta uste dut irailera arte ez naizela itzuliko Lleidara (bertan ikasten du unibertsitate-gradua), beraz...! **Non eskuratu zenuen bizikleta?** Aitarena da, eta, Gabonen ondoren, sorpresaz Urnietara egin dako bisitaldian eraman nuen Finlandia aldera.

Non egin duzu lo?

Basoetan, gehienbat, kanpindendarekin. Ez dut hotzik sentitu, lozaku ona daukadalakoa. Beste batzuetan, eguna euripean igaroz gero, kanpin batera sartzen nintzen dutsatzera. Kanpindendarekin arazoak izan nituen, ez zelako apartekoa; geruza bakarra zeukan eta barrutik busti egiten zen. Gainera, jendeak aterpea eskaintzen dizu

bere etxean aplikazio baten bitartez.

Finlandiatik Parisera ailegatu arte, bakarrik aritu zara bidean. Nolako esperientzia izan da hori?

Gustatu zait, lasai-lasai joan izan naiz gehienetan. Musika entzun dut, eta podcast mordoxka bat. Neure buruarekin egoteko tartea izan da bidaia, hausnartzeko denbora luzea izan dut, baita ezer ez pentsatzeko ere.

Nolanahi ere, bidelagunik batu zaitzu bidean, ezta?

Paristik aurrera, Sararekin egin dut bidaia, Finlandian nirekin bederatzi hilabetez egon den laguna, arreba, ia! Bera ere kirolaria da. Hamabi egun egin ditugu elkarrekin. Oso bestelakoa da, hitz egiteko aukera daukazulako uneoro. Leku ezohikoetan lo egiteko ausardia handiagoa daukazu, era berean. Landetan, hotel abandonatu batean egon ginen gaua igarotzen, hondartza pare-parean.

Poltzikoari asko begiratu behar al zaio horrelako bidaia bat egiteko?

Bada dirua, ekipajeak kalitate onekoa izan behar duelako. Baina merezi du. Egunekeo, 10-15 bat euro gastatu ditut. Gainera,

horrelakoetan, bakoitzaren erabakia da. Dirua baldin badaukazu, hotel batera joan zaitezke lotarako, nahi izanez gero; bestela, hortxe daukazu basoa, eta ez dago batere gaizki!

Hizkuntza muga izan al da unereren batean?

Bai. Frantzian, gizon baten etxean gelditu ginen. Guk ez geniekien frantsesik eta berak ez zekien ingelesik. Dena dela, afaltzen eman zigun eta guk guztiari *oui oui, okey okey* esaten genion! (Barrez)

Horrelako abenturetan izaten dira ezustekoak.

Bai... (Barrez). Suedian, euri pila egin zuen, egun batean, bereziki. Burugorria naizenez, bidean aurrera eginda, egun horretako helmugara iristeko nire asmoak tinko jarraitzen zuen (horrelako bidaia batean izan behar da apur bat buru gogorra...). Bada, egun horretan, eguraldiak esan zidan, ezetz, ezingo nuela aurreikusitakoa bete. Landa-eremu baten erdian nengo: gari-soroak eta pare bat baserri. *Bed and breakfast* delako bat omen zegoen, baina, hara joanda, ez nuen inorekin topo egin. Bien bitartean, kazkabarra hasi zen eta gero eta hotz handiagoa egiten zuen. Autostop egitea erabaki eta kotxe bat gelditu zitzaidan; base-rritar batek garajea lo egiteko aukera eman zidan. Hantxe igaro nuen gaua, lasto artean, traktore baten alboan!

Gauetz bidaia al duzu?

Ez. Behin, Sararekin ahalegindu nintzen, goizeko 05:00etan jai-kita, baina, segituan, egunsentia ailegatu zen.

Tokiak bisitatzekeo tartetik hartu al duzu?

Bai, baina, gehienez jota, egun bat. Hiri handietan gelditu naiz, batez ere: Stockholm, Kopenhage, Bremen... Basoan denbora igarota, hirian soinu gehiegi dagoela iruditzen zitzaidan; ez nintzen hain gustura sentitzen. Are gehiago, herri txikietan ez bezala, hirigune handietan, ez da hain erraza bizikleta non utzi asmatzea.

Kuttuneko bihurtu al zaizu txororik bidean?

Kopenhagera iritsi aurretik, baso eder bat zegoen; harrituta utzi ninduten bertako zuhaitzek. Halere, berez, toki guztiek dute bere xarma. Jende gutxi zapaldu dituen tokietan ibili naiz.



Neustadt in Holstein, Alemania. JOSEBA ERRAZKIN



Sekulako ongi etorria eman zioten Urnietan. JOSEBA ERRAZKIN

Helmugara ailegatzea baino, bidaiaz gozatzea izan duzu xede. Momenturen batean, "amore ematea" pentsatu al duzu?

Banuen helburu etxera iristea. Baina, presiorik gabe, noski. Zenbait egunetan, kosta egiten zitzaidan ibilbidean aurrera egitea, baina ez dut sentitu "amore emateko" nahia.

Atzera begira jarrita, irakaspenik ateratu al duzu?

Zereginak azkar eta erdizka egiten dituen horietakoa izan naiz betidanik. Hemen, gauzak mantso eta pazientziaz egiten ikasi dut. Esaterako, motxila puskatu zitzaidanean, ia egun oso bat erabili behar izan nuen hura konpontzeko. Bada, presiorik gabe hartu nuen; behar zuen denbora eskaini nion.

Gomendiorik emango al zenioke antzeko bidaia egin nahi duen norbaiti?

Pisu gutxi eraman! (Barrez). Bestalde, herri txikiez gozatze-ko. Teknologia berriek errezta-sun handiak ematen dizkigute, baina are politagoa da taberna batera sartu eta bertakoekin hitz egitea nahiz bideei buruz galdetzea.

45 egun ostean, helmugara, Urnietara, iritsi zinen uztailaren 4an.

Ordu txikitan iritsi ginen Sara eta biok. Azken etapa Bokale Zaharrean (Vieux-Boucau-les-Bains) hasi genuen, goiz partean, eta Baionan ginen arratsaldeko 17:30ean. 60 bat kilometro genituen aurretik Urnietara iristeko, eta egunean bertan egitea erabaki genuen. Lagunei egun horretan bertan iritsiko ginela abisatu nien; banekien argi gutxi egongo zela; beraz, gurekin azken txanpa egiteko gonbitea luzatu nien. 22:30ean Oiartzunen batu zen kuadrillako Iosu Gomez gurekin bizikletan, eta, atzetik, lagunak autoarekin, argia ematen. Hona iristean izugarrizko ongietorria egin zidaten lagunak, pankartekin eta konfietekin. Izugarrizko ilusioa egin zidan. Berezi sentitu nintzen, oso gustura.

Eta, orain, zer?

Orain? Lasai egon. Udari begira, Logroño partera joango naiz lanera eta, Lleidara, irailean itzuliko naiz, graduako azken urtea egitera. Bestalde, ez daukat bidaiatzeko asmo argirik oraindik, baina, etorkizunari begira, badut gogoia.



Astearte eguerdiko ezohiko plenoaren irudia. AIURRI

Hau stura areagotu da

Azken bi asteetan Andoaingo Udal ordezkariak eta Etxeberrietako auzokideak aurrez aurre egoteko hiru aukera izan dituzte. Hiru hitzorduak igarota, Etxebizitza zahar askoren eta Udal Gobernuaren arteko talka areagotu baino ez da egin

JA. Ubeda eta M. Arberas ANDOAIN
Urceman enpresaren bitartez Etxeberrieta I eta II izenez eza-gutzen diren hirigintza-egitasmo berriak ingurua eraberritu dute. Hirugarren fasean, epe erdira, geratzen diren etxebizitza zaharrak eraitsi eta auzune berria erabat osatuta gera daiteke. Etxeberrieta izenak, berriro, iragan mende erdialdeko dizdira izango du. Nola egin eta nork bideratu hirugarren fase hori, hortxe sortu da zalaparta Andoainen. Urceman enpresak egitasmo zehatza du, aurreko agintaldian lantzeari ekin ziona. Baina, gaurkoz, egitasmo zehatzik ez dute formalki aurkeztu eta Udal Gobernu taldeak beste plan bat du auzune horretarako: Eusko Jaurlaritzarekin batera, etxebizitza sozialak eraiki nahi ditu. Tartean etxebizitzaren jabeak eta bertako bizilagunak daude.

Udal Gobernu taldeak bere egitasmoarekin aurrera egitea lortu zuen, astearteko ezohiko plenoan Eusko Jaurlaritza eta Andoaingo Udala lotuko dituen lehen hitzarmenari bidea eman ziotelako. Tentsioz beteriko plenoa izan zen, emozioak agerian geratu ziren. Plenoa amaituta, kanpoaldean haserrea nabarmena zen, eta Udaltzaingoak bere agerpena egin zuen gerta zitezkeen liskarrak saihesteko.

Formalki, beraz, gobernu taldearen proposamena aurrera atera zen sozialisten eta jeltzaleen bederatzi botoekin. EH Bildu eta Elkarrekin Podemos abstentzioaren alde agertu ziren, Udal gobernuaren prozedurarekin kritiko agertu zirelako.

Ikustear dago etorkizunak zer ekarriko duen, baina gaurkoz Etxeberrietako hainbat auzotarren eta Udal Gobernuaren ar-

teko talka nabarmen handitu da. Eta hori hiru hitzordu ezberdin izan dituztela egon daitezkeen zalantzak argitzeko, eta nolabaiteko gerturatzea lortzeko.

Bi aste katramilatsu igaro dira. Ekainaren 30eko plenoan hizpide izan zen hitzarmena sinatzeko proposamena. Bizilagunak bertara agertu ziren eta, protesten eraginez, bilera informatiboa deitu zuen Udalak. Egun horretan aztergaia ez zen bozkatu ere egin udaletxean. Uztailearen 6an egin zen auzo bilera hori, eta auzotarren eta Udal Gobernu kideen artean ez zen konponbiderik topatu. Biharamunean, alkateak ezohiko batzaraldia deitu zuen, aztergaia behingoz bozkatu eta onartzeko. Gobernu taldeak bere asmoari bidea ematea lortu du. Auzotar askorekin sortu den arrakala areagotu egin da, ordea.

Plenoan entzundako adierazpenak

Jose Luis Verdasco (PSE-EE): “Ezohiko batzaraldia deitu dugu, ezinbestekoa iruditzen zaigulako ahal bezain azkarren neurriak hartzea. Bizi duten egoerari erantzun bat eman behar zaio, segituan. Askotariko kasuistika daude auzoan, baina, uste dugu, ezinbestekoa dela modu eraginkor eta sozial batean jardutea”.

Mari Jose Izagirre (EAJ-PNV): “Onartzen dugu egin beharreko komunikazioa, akaso, ez dela nahikoa izan. Baina, Verdascok adierazi bezala, uste dugu egiten ari diren ikerketa sozio-urbanistikoko kasuistika ezberdinak aztertuko eta kontutan hartuko dituztela; horiek horrela, gu instituzio bezala, publikoaren alde jo behar dugu eta, beraz, gure bozka baiezkua izango da”.

Andoni Alvarez (EH Bildu): “Ez du zentzurik proiektua aurrera eramatea bizilagun gehienak aurka baldin badaude. Horrelako proiektu bat egikaritzeko ezinbestekoa da informatzea. Bizilagunei kasuistika bakoitzean zer jazoko den azaldu beharko litzateke eta, ondoren, adostasunarekin sinatu. Kasu honetan, alderantziz egin da; hitzarmena onartzeko eskatu, euren etxebizitzekin zer gertatuko den jakin gabe”.

Tere Santana (Elkarrekin Podemos): “Sarritan adierazi bezala, kuadeaketa publikoaren alde gaude eta hitzarmena onartzeko prest agertuko ginateke gauzak ongi egin izan balira, baina egoera honetan ezinezkoa zaigu baiezko bozka ematea. Komunitate bat gara, bizilagunak ditugu; ez zarete bakarrik bizi. Nire ustez autokritika apur bat egin beharko zenukete”.

Herriarren parte hartzea

Bost pertsona ezberdinek hartu zuten hitza. Adierazpen guztien artean emakumezkoen bi ahots nabarmendu ziren.

Jaione, Etxeberrietako etxetxabeen senidea: “Hitzarmen tranpa bat da, eta horregatik ulertzen dut oposizio alderdien abstentzioa. Hitzarmenaren alde egiteak desjabetze gordin bati bidea ematea du. Historia asko dago auzoan baina kasuistika oso zehatzak daude. Ez dut ulertzen gobernu taldearen jokabidea. Komunikazioa, gardentasuna, formak, gertutasuna, enpatia eta arima gutxi erakutsi duzue”.

Fatima, Etxeberrietan bizi den herrikidea: “Etxebizitza baten jabe naiz. Gezurretan aritu dira gurekin. Udal gobernutik adierazi da hitzarmena sinatu behar dugula eta ondoren azalpenak emango zaizkigula. Bada, ez. Zuk lan hitzarmen bat sinatuko zenuke jakin gabe zein lan baldintza izango duzun? Ez. Langilea naiz, eta zortzi seme-alaben ama naiz. Ikasten ari dira, eta senarra eta biok ari gara lanean. Lan asko egin dugu etxebizitza eskuratzeko eta ez naute handik aterako”.



andoaINDARRA
euskaraz

Xabier Lasa ANDOAIN

Jose Brunet Bermingham (1836-1891) Donostiako enpresari eta zinegotziak XIX. mendearen bigarren zatian egindako argazkiekin osatu dute erakusketa, Aldundiako Kultur sailak eta Donostiako udalak antolatuta.

Argazkien egilea, Jose Brunet, "enpresaburu aktibo eta argazkilari bikain" gisa definitzen da erakusketan. Gogoratu behar baita Brunet familiak Donostia-ko eta Gipuzkoako sektore ekonomikoan zein politikagintzan eragin handia eduki zuela, XVIII. mendearen amaieraz geroztik. Egun, Antiguako auzoan Brunet familiari eskainitako kale bat dago. Hain zuzen, familia horretako kide den Joaquín Mencos Doussinagere (Defentsa Errealeko markesaren noble-titulua-ren jabe) utzitako argazkiekin osatu dute erakusketa. Mencos 2.000 kristalezko negatiboez osatutako altzorraren jabe da; batik bat Jose Brunetek berak eta bere seme Ubaldok ateratako argazkiak dauzka, eta Nafarroako Artxibo Orokorrean utzita dauzka. Artxibo horretan negatibo guztien digitalizatze prozesuari ekin diote.

Ez da batere erraza izaten XIX mendeko argazkiak topatzea, eta ziurrenera, Buruntzaldeako herriak, herritarrak, parajeak eta abar agertzen dituzten makina bat harribitxi egongo dira funtsa horretan, noizbait, norbaitek argia haiengan noiz proiektatuko zain.

Hiru sailetan banatuta

Koldo Mitxelena-ko erakusketan sartu eta berehala, Jose Brunetek argazkiak ateratzeko erabili zuen ekipoarekin egingo du topo ikusleak: hain zuzen, hauspo-makina trinko bat (egurrezkoa da kameraren gorputza), tripode bat eta beirazko plaketarako bisore estereoskopiko bat. Traste horiekin ateratako argazkiak, berriz, hiru sailetan banatu dituzte erakusketan barrena.

Lehenbiziko zatian, Jose Brunet erretratugile gisa agertzen zaigu; bere familiako kideek, belaunaldiz belaunaldi, hartzen dute protagonismoa erabat.

Bigarren argazki sortak, Donostiako hiriguneak XIX. mendean barrena jasan zuen eraldaketa urbanistikoa deskribatzen digu: kaleak, obretan dauden eraikinak, fabrikak,



Donostiako Koldo Mitxelena-ko ikusgai dago, uztailaren 30era bitarte. AIURRI

"Aurrera eginez" erakusketa

"Aurrera eginez-progresando" izenekoa, Koldo Mitxelena-ko ikusgai dago uztailaren 30a arte. Donostia eta donostiarrak ez ezik, Usurbil, Urnieta edo Hernani herriak eta herritarrak, langileak, arrantzaleak, baserritarrak eta kaletarrak ageri dira

portu berria, tren modernoak, lurruntziak eta abar ikus daitezke.

Erakusketako azalpenetako batean zehazten denez, hiriko harresi zaharrak eraitsi aurretik, hiri ereduaren inguruko eztabaida sutsua piztu zen herriarren artean, eta azkenean, Donostia jakin baten aldeko hautua egin zuten: "Bainu-hiri bat izatea, ederra eta dotorea, pasealekuekin, lorategiekin eta gero eta bisitari gehiago erakarriko zituzten zerbitzuekin".

Azkar joan zen eraikuntza prozesu hori, izan ere bost urtetan eraiki zituzten Boulebar-detik Etorbiderainoko orube guztiak; eta geroxeago, Antigua eta Gros auzo periferikoak urbanizatzeari ekin zioten.

Epe historiko horretan gizar-ateak jasan zuen eraldaketa jorratzen du hirugarren zatiak, "belaunaldi batean, iturrira ur

bila joatetik etxeetan ur korrontera edukitzera igaro ziren: olio belekin eta lanparekin argiztatetik, gasarekin eta argindarrarekin argiztatzerara; arraun txalupetan arrantzatzetik, lurruntziaren arrantzatzetara; diligentsiatik trenbidera, eta aldi berean, biztanleria hazi egin zen eraikuntzarako, industria-rako, saltoki berrietarako, hoteletako eta abarretarako eskulan eskari handiagatik".

Jose Bruneten kameraren ikuspegiak etnografikoenean azaltzen da erakusketaren hirugarren zati horretan. Eta batik bat, XIX. mende erdialdeko lehen industrializazioaren baitan, emakumeek bizi izan zituzten eraldaketak islatzen dira, etxeko-lan edo lanbide tradizionaletatik (iruleak, urketariak, saregileak, garbikuekako arropa garbitzaileak...) fabriketara egindako jausia.

Brunet familia, boteretsua Donostian

Brunet familia Donostialdean eragin handia eduki zuen klan oligarka izan zen XVIII. mendearen bukaeratik XX. mendeko lehen zatira bitarteko epean. Merkatariak, bankariak eta industrialariak izan ziren bere kide ugari. Belaunaldiz belaunaldi familiako kideek euren negozioei jarraipena eman zieten, eta normalki antzeko ahalmen ekonomikoa zuten familietako kideekin ezkontzeko joera eduki zuten.

Ekonomian ez ezik, politikagintzan ere era askotako ardurak hartu zituzten: Donostiako alkate eta zinegotzi nahiz senatari edo AEBetako kontsul izan ziren.

Brunet familiak, berez, Copons herrian (Bartzelona) zuen jatorria; XVIII. mendearen hondarrean familiako hiru anai Do-

nostia-erori ziren, Amerika-ekin lotutako merkataritza-harremanak sortzeko asmoz. Bertan, banku bat ireki zuten lehenbizi. Segidan, itsas merkataritza negozioa jarri zuten abian Donostiaren eta Espainiako koloniak ziren Kuba eta Venezuelako portuen artean; burdina esportatzen zuten eta kakaoa, azukrea eta tabakoa inportatzen. Bestalde, New Orleansetik kotoia ere ekartzen zuten. Itsasontzien jabe zen Brunet familia.

XIX. mendean, Brunet familiako kideek Donostiako hiriri lotutako hainbat ekimenetan hartu zuten parte, enpresari gisa. Besteak beste, Donostiako Casinoaren, eta zenbait hotelen eta antzokiren bultzatzaileak izan ziren.

1841ean Gipuzkoako papergintzaren sektorean aitzindaria izan zen *La Esperanza* fabrika ireki zuten. Handik lau urtera, 1845ean, Urnieta-ko udalerriko Oria auzoan, *Fabrica de Hilados y Tejidos de Algodon* ehun-fabrika ireki zuten.

Esan daiteke Oriako giza komunitateak –eta beraz, urnietar ugari– lantegi horren jiran eraiki zutela bizimodua hurrengo hamarkadatan, harrezkero. Izan ere, historian atzera joanez gero, ez dugu ahaztu behar Oria Urnieta-ko udalerriko zatia izan zela mendetan, harik eta 1986an Lasarte-Oria udalerriri bilakatu zen arte, Andoain, Donostia, Hernani, Urnieta eta Usurbilgo udalerriekin desanexio prozesua gauzatu ostean.

Brunet familiaren lantegia Oria auzoan

XX. mende hasieran, Oriako auzoan Brunet familiak sortutako 140 etxebizitzetan giza komunitate oso bat bizi zen, eta horietako kide gehienak (308) lantegian lan egiten zuten (190 emakumezko eta 118 gizonezko). 1947an, 400 langile ziren (270 emakumezko eta 130 gizonezko). 1956an, fabrika Azkarate familiak erosi zuen. 1986an betirako ateak itxi zituen.

Fabrikako makinaren energia Oriako ibaiaren urek eragindako turbinek hornitzen zuten; horiek 300 zaldiko potentzia zuten. Horren ondorioz, Brunet y Cía Elektrizitate Fabrika sortu zuten, eta bere energia-soberrakinak langileen etxebizitzetara banatzen zizkien.



IRITZIA

XABIER LASA ANDOAIN

Brunet familia eta figuranteak

Ez da ohikoa XIX. mendeko material grafikoa edukitzea, eta antolatzaileak –Aldundia eta Donostiako Udala– harribitxi horretaz baliatu dira, zenbait testuez lagunduta, Donostialdeak bizi izandako garapen ekonomikoa, urbanistikoa eta soziala kontatzeko erakusketan. Eta alde horretatik, lortzen du kutsu didaktikoa izatea erakusketak, ikusgarri eta jakingarri bilakatzea ikuslearentzat.

Baina historia modu askotara deskribatu, interpretatu, berridatzi... liteke. Eta Mitxelenako erakusketaren antolatzaileek ukitu elitista daukan metodo historikoa erabili dute; hots, printzipio gisa edukitzea elite politiko edo enpresarialaren inteligentzia eta eginaharlari esker garatuz doala gizarte.

Argazkien lagungarri diren testuak irakurrita, interpreta-zio hori egitera eraman nahi dutela ikuslea, iruditzen zait. Behin eta berriro goraipatzen da Brunet familiaren jarrera, gizarteari begirakoa; altruis-moaz gainezka jokatu zuenaren sentsazioa dirudi batzue-tan. Tarteka irakurri daiteke Brunet familiak Donostia 1813ko sutearen ondoren biziberritzeko eta berreraiki-tzeko lan handia egin zuela, bere garapenaren sustatzaile izan zela, edo “Gipuzkoako industrializazio prozesuaren aitzindaria” izan zela.

Makina bat argazkitan arrantzaleak, baserritarrak, eta batez ere, emakume garbitzaileak, iruleak, ehun-fabriketako langileak... agertzen dira. Baina apenas doazen “estanpa bukolikoak” izatetik harago; iragane-ko “kuadro kostunbrista” osatzen dute soilik. Film bateko figuranteak dirudite, ez dutenak “historia egiten”; egunerokoan lan egin eta iraun-bizi baizik ez. Horien ondoan, Brunet familia aurkezten zaigu benetan historiaren egile gisa,



Emakume gazteak Brunet ehungintza lantegian lanean. JOSEBRUNET

gizartearen aurrerapen historikoen bultzatzaile.

Esplotaziozko lan-baldintzak

Brunet familia, besteak beste, XVIII-XIX. mendeetan Kuba eta Venezuelako kakaoa eta tabakoarekin nahiz New Orleanseko kotoiarekin negozio eginez aberastu zen. Azter genezake produktu horien ekoizte-prozesuan gizakiak esklabizatzeak jokatzen zuen funtzioaz. Baina itsasoz bestaldera joateko premiarik gabe ere, bertara gaitezen, Oriako lantegira urrutira gabe. Bi aro historikoetan (1860an eta 1931-1936an) Brunet lantegiko langileen lan baldintzen berri edukitzeko primeran datozkigu liburu banatan argitaratutako pasarteak.

Lehenbizikoa, Frederic Le Play soziologo eta ekonomialari frantsesak 1860ean idatzi zuen *Campesinos y pescadores del norte de España* liburuak dakar. Bruneten lan egiten zuten neskatxen bizimodua deskribatu zuen.

“(…) Langile emakumeei egiten zaien zaintza atsedean orduetara zabaltzen da. Eta jasaten duten diziplinaren erlijio-establezimenduen diziplina gogorarazten du pixka bat. Adibide nabarmen bat ikusi da Oria ibaiaren gainean dagoen iruntzi- eta ehun-tailer handi batean, Donostiatik gertu.

Bizitegi-guneetatik urrun samar daudenez, neskatxak, langileen gehiengoa osatzen dutenak, logela komun batean oheratzen dira. Bostetan jaikitzen dira eta, erlijio-betebeharrak bete ondoren, lanean hasten dira. Egunean zehar hiru atsedenaldi izaten dituzte, bi ordukoak guztira, otorduak direla eta. Atsedenaldi horietan, esparru itxietan, neskek beren artean herrialdeko kantu eta dantzei ekiten diete, beren entretenimendurik nagusienak baitira. Arratsaldean, zortzi eta erdietan igotzen dira logelara, eta bederatzi eta erdietan argi guztiak itzaltzen dira, eta ezarritako isiltasuna, lo egiten ez dutenek beren lagunak gogaitu ez ditzaten. Ohar horien bidez ikus daitekeenez, araudi hori gutxi gorabehera barnetegi batena da... Oro har, neskek otzanak dira eta beren borondatez men egiten diote arauari; beren adinak eta izaerak nolabaiteko aginpidea ematen dieten emakumeak arduratzen dira, gainerakoan, horiek betetzeaz. Azkenik, langile gazteek ez dute familiarekiko harremanik galtzen. Larunbatean, lana hiruretan amaitzen da, eta, makinak eta tailerrak garbitu ondoren, gurasoen etxera joan daitezke laurak aldera, igande osoa bertan igarotzeko...”.

Bigarren pasartea, Biktorio Bikuñaren eskutik heldu zaigu;

II. Errepublikan sindikalista ezkertiarra izanik, gero frankismoaren eta nazismoaren aurka borrokatu zuen oriatarrak Mikel Rodriguez historialariari eman zion lekukotza (*Memoria de los vascos en la II. Guerra Mundial. De la Brigada Vasca al Batallon Gernika*).

“(…) Nire aita Luis Bikuña Beloki zen, Ordiziako baserri batekoa, gaztelaniaz ia hitzik jakin gabe hil zena. Ama Arabako Errioxakoa nuen, Celestina Ferrero Muga. Oso gazte etorri ziren Oriako auzunera, Brunet enpresa bete-beteaz zegoenean. Aitak pobreak, zintzoak, bederatzi seme-alaba izan zituzten. Brunet enpresa zen herriaren jabea. Nik zaharra ezagutu dut, don Guillermo eta gero semea, Jose Manuel. Enpresari eta kudeatzaile ospea zuten, baina patroik bezala benetako esplotatzaileak ziren. Bakoitzari berea. Fabrika ez zen berrehun langiletik jaisten. Pisuak, elektrizitatea, ura, ekonomatoka, dena Brunet jaunaren esku zegoen, eta familia langile asko, zerbait aurreztu beharrean, gero eta zorpetuago zeuden. Nire amak, bederatzi seme-alaba izan ondoren, ehungailura joan behar zuen oraindik bere indar apurrak uztera. Umeak egun osoan ibiltzen ginen bihurrikeriak egiten eta fruta lapurtzen, fruta ez baitzen langilearen etxean sartzen, eta jaten genuen bakarra hartzen genuena zen. Egunduan, patroiak, don Guillermok, bere jauregitik bidean eroritako lau gaztina hartzen ikusi gintuen. Hamar gurdy kargatzeko gaztainondoak zituen. Izan ere, eskolara joateko astia izan zuen irakaslearekin hitz egiteko. Maisuaren jipoia jaso genuen, on Rosendorena ondoren -San Pedro Apostoluaren apaiza-, eta gero gure gurasoena. Lan egiteko beste ezertarako denborarik ez zuten edukitzen gurasoek, baina amak, beharbada seme “deskarriatua” nintzelako, asko maite ninduen.

Gure pisu txikian ez zegoen ur korronterik eta eskasiaren ondorioak jasaten genituen. Asko sufritzen genuen, baina ez genion zentzu politiko edo sozialik ematen. Ingurua industrializatzen hasi berria zen, eta auzoa emigrantez osatuta zegoen; emigranteek ez zekiten hitzik ere, gaztelaniaz, edo ez zuten hitzik egiten euskaraz.

Langile kooperatiba bat ere sortu genuen, ahalegin handiz, horrekin Brunetek diru-iturri bat eta presio-mekanismo bat galdu zituelako. Bi urtetan lortu genuen familiei dibidendu bat banatzea, kontsumitutakoaren arabera. Gazte Sozialistak ere sortu genuen, eta borroka luze eta gogorretan parte hartu genuen, lanaldiak murrizteko eta soldatak hobetzeko. Patroiek kontraerasora jotzen zuten, “Solidarioiei” “soka” gehiago emanez, apaizari eta katekistei babesa eskainiz, baina ezer gutxi lortzen zuten. Laster ezagutu nituen Tolosa, Ondarreta eta Guadalupeko kartzelak...”.

Oria, Rusia txikia

II. Errepublikan, Gipuzkoa osoan egin ziren famatu Oriako auzotarrak. “Rusia txikia” deitura jarri zioten auzoari, auzotarrek erakutsia zuten langileen eskubideen aldeko nortasun borrokariagatik. Geroxeago, 1936an, kolpe militarari aurre egiteagatik eta ordainean egundoko errepresioa (heriotza, kartzela, exilioa...) jasateagatik ere nabarmendu ziren, zoritxarrez.

Familia txiroen altzoan jaio eta hazi ziren auzotar guztiak Orian, eta 12-14 urterekin ikasketak utzi eta Bruneten lanean hastea izan zen hain patu bakarra. Aurrez markatutako bizimodu horren ordeztu, Brunet bezalako familia baten baitan sortu izan balira, konparazio batera, zenbat argazkilari ez ote ziren aterako Oriatik?



Danborrada ekitaldi nagusia izan zen, jaialdi horren bitartez auzoan barrena ibili zirelako. AIURRI

Uda beteko jaia Karrika auzoan

Karrikako askorentzat ere auzo bakarra dago munduan, eta hori euren da. Jaiak egin ala ez egin, zalantza horretan murgilduta ibili eta gero egun osoko ospakizuna egin zuten uztailaren 9an. Bero handia egin zuen, baina hori ez zen oztopo izan

Xabier Lasa ANDOAIN

Euskaraldiaren Txokoa, Apar festa, puzgarriak eta abar, haurrak eguneko lehen protagonis-

tak. Sagardo dastaketaren ostean iritsi zen paella jatea, eta ordu-rako Jai Batzordea festa betean murgilduta zegoen. Danborrada

izan zen ziurrenik jaiaren ekitaldi nagusia. Iluntzean eta gauean auzoa alaituz ibili ziren, kalez kale egindako ibilaldian.



Auzoko txikienak, Manolorekin, danborradan aurretik ibili ziren. AIURRI

Mari Karmen Rodriguez omenaldia

Karrikako danborradako kideek 2019ko irailean zendu zen Mari Karmen Rodriguez Garcia auzokideari omenaldi xumea eskaini zioten. Txokolate jateaz arduratu ohi zen eta horrexegatik "txokolatera" ezizena jarri zioten auzoan. Senitartekoei lore sorta eskaini zieten larunbat iluntzean, eta ondoren, "Karrika Martxa" jo zuten Rodriguezen omenez.



Mari Karmen Rodriguez beste hiru auzokideekin, 2017ko txokolate jatean.



Alba Morenok eta Ainhoa del Amok zuzendu zuten danborrada. AIURRI



Karrikako Jai Batzordeko lagunak, jaien hasieran. AIURRI



Eguerdiko 12:00tan bota zuten jaien hasierako txupinazoa. AIURRI



Goizean haur jarduerak antolatu zituzten. AIURRI



Haur eta gazte ugari bertaratu zen Karrikara, beste auzotatik. AIURRI



Gozatu ederra hartu zuten hurrek, apar-festan. AIURRI



Auzotarrak eta herrikideak, eguerdiko sagardo dastaketan. AIURRI



Sagardo frexkoa edateko eguraldi beroa nagusitu zen. AIURRI

Karrika, Kaletxiki, Sanjuanak.... Udako jaiak Aiurri.eus gunean



Argazki-bildumak



Bideo sorta zabala



Kronikak, iritzia

AIURRI.EUS ALBISTEAK, ARGAZKIAK, BIDEOAK, AGENDA





Asier Rajado andoaindarra Adarrara bidean Adarra Trail lasterketan, maiatzaren 15ean. AIURRI

“Ez naiz dohain fisiko bikaineko pertsona; lana da nire sekretu bakarra”

ASIER RAJADO MENDI KORRIKALARIA

Adarra Mendi Trail lasterketako lehen ekitaldia irabazi zuen, baina ez du bere burua onenen artean ikusten; hazten segi nahi du, eta Zegama-Aizkorri korritu, etorkizunean

Andoni Urbistondo URNIETA

Asier Rajadok ez dauka eskarmentu handiegirik elkarriketekin, baina patxada handiz mintzatzen da. Bere esanekin bideo bat egingo dela entzun duenean, baina, hainbesteko arretarik ez duela merezi esan du umiltasunez.

Nor zaitugu Asier?

Andoaingo gazte bat, 35 urtekoa. Mendi korrikalaria naiz. Duela bost urte hasi nintzen korrika, eta gustura ari naiz.

30 urterekin hasi zinen mendian korrika, lehenago beste kirol diziplinaren batean aritu al zinen? Zer egin zenuen?

Denetarik egin nuen. Parranda ere bai! Kirola bizi guztian egin dut: gimnasioa, futbola, areto futboleko federatua egon nintzen sei urtez, pisu asko jaso... Korrika 2017n edo hasi nintzen, bizikleta ere bai, erresistentzia lantzen. Mendi-lasterketetan hasi nintzen pixkanaka, eta gaur arte.

Zure emaitzak ikusita, maila handia lortu duzu azken bost urtetan.

Benoa, maila handia esan duzu... Nahiko ona esango nuke, handia baino. Norekin konparatzen zaren da gakoa, zure maila neurtzeko. Nahiko maila onean nabilela uste dut, baina hainbestekoa ere ez. Lasterketa pare bat irabazteak ez du halako garrantzirik. Bada lasterketarik irabazi ez duen korrikalaririk, ni baino maila handiagoa duena, parte hartze ona duten probetan sailkapen hobeak lortu dituelako. Nik bi lasterketa irabazi ditut, bai, baina bere neurrian baloratu behar da. Kontent nago, asko hobetu dudalako, eta lasterketak irabazteko maila eduki behar delako.

Irabaztea beti da zaila.

Bai, noski. 2017n hasi nintzen, lesio pare bat pasa, eta martxa hartu dut. Dagoeneko hirugarren denboraldia dut serio samar. Iaz hasi nintzen hobetzen, eta aurtun eman dut beste jauzi polit bat.

Nola sentitzen du korrikalariak hobekuntza hori?

Inertzia kontua da. Ondo ikusten zara, lasterketa batean 15. gertatzen zara, beste batean 10. eta gero podium-en bat lortzen duzu. Azken koska lasterketaren bat irabaztea da. Jauzia iaztik datorrela esango nuke, nahiko postu onak lortu baintuen. Gurean maila ikaragarria da, eta nire gainetik jende asko dago

oraindik. Maila handiko probetan ez nintzateke onenen artean sailkatuko.

Alderaketaren bat egin zenezake, diozun egoera hori hobeto ulertze-ko?

Axeri Trail-en 8. sailkatu nintzen iaz, eta T3T lasterketa ezagunean ere 9. Emaiza ona da hori. Maila handiko korrikalarik zeuden proba horietan, eta Top 15ean sartzea ez da erraza. T3T probako Top 10a Adarra Trail irabaztearen parekoa izan daiteke, Tolosan parte hartzea bikaina delako.

Bi proba irabazi dituzu dagoeneko.

Bai, Santo Domingo de la Calzadan, Errioxan. Adarra Trail baino hilabete lehenago, eta herriko lasterketan ondoren.

Irabaztea ez da erraza, Asier, eta zuk badakizu zer den, dagoeneko. Zer sentitzen da?

Adrenalina askatze ariketa bat, agian. Asko saiatzen naiz hobetzen, eta esfortzu horrek gero emaitza izatea, hori oso sentazio polita da. Horregatik da polita kirol hau, ikusten ez den ahaleginak, lanak, prestakuntzak, isla duelako emaitza onekin.

Andoaindarra izan eta herriko lasterketan herriko plazan garaile sartzea... A zer nolako mementoa, ezta?

Bai, bikaina. Ondo joan zen eta oso gustura bukatu nuen. Ez zen garai batean Urnietan egiten zen lasterketa bezalakoa, baina zure jendearen aurrean lehiatzea beti da polita.

Ezagunago egin al zara herrian Adarra Trail irabazita?

Ez dut uste. Ni betiko pertsona naiz. Ez dut ezaguna bilakatzeko adina lorpenik poltsikoratu oraindik. Jendeak ezberdin begiratzeko, edo kalean jendeak sinaduraren bat eskatzeko moduko lorpenik ez daukat. Ez da hainbesterako.

Eta behin bi proba irabazita, zein da zure hurrengo erronka?

Lehiatzen jarraitzea. Ikusiko dugu zer gertatzen den hurrengo denboraldian. Pertsona normala naiz, ez naiz sekulako dohain fisikoak dituen pertsona, egunetik egunera ikusiko dugu, osasunak laguntzen banau. Langile soil bat naiz, gustatzen zaidalako ari naiz mendi lasterketetan, eta errezeta bakarra ezagutzen dut: lana, lana eta lana. Gizakia berez da erronka zalea, eta ni ere bai. Postu ona egiten badut lasterketa jakin batean, erronka etorkizunean

postu on hori hobetzea da, maila edo parte hartzea hobe daukan probaren batean.

Zer egiten duzu ondo prestatzeko? Elikadura zaindu eta asko entrenatu. Aspalditik ari naiz. Normalena zure errendimendua urtero pixka bat hobetzea da, hori da nire kasua. Mendian maila teknikoak, indar puntua hobetzen joaten da. Eta konfiantza hartzen duzu pixkanaka, zure gaitasunean sinetsiz.

Langilea zara, Amezketako paper enpresan, egunero zortzi ordu, etxera etorri eta entrenatu beharra. Samurra ez.

Ez, baina bizitzako beste arlo askotan bezala diziplina behar duzu, eta entrenatzeko bada, are gehiago. Jakina, lantokian egun osoa pasa eta etxera etorritzen naizenean nekatur sentitzen naiz, baina badakizu zure pasioari bide eman behar diozula. Gogorik gabe entrenatzen dugu askotan, edo egun txarra izan, baina segi egin behar. Hobetu nahi bada entrenatu beste erremediorik ez dago, eta hori onartua daukagu. Kirola egiteak patxada handia ematen dizu egunerokoan, bai buruz, eta bai gorputzez. Ez dago hori ematen duen botikarik, eta pentsatzen dut horregatik irauten dugula, egun askotan erabat gogogabeta sentituta ere.

Bizikletan ere ibili zalea zara.

Bai, lesionatu egin nintzen duela hiru urte, korrika ezin egin, eta entrenamenduak bizikletan osatu nituen. Askok gustatzen zait bizikleta, eta giharretako nekea askoz apalagoa da.

35 urte dituzu, agerikoa da mendi-lasterketetan neurri onena emateko adina 35 eta 40 urte artean dela.

Jakitun naiz lasterketa laburretan, bizietan, gazteen aurka-eta zereginik ez daukadala. 20-25 urteko gazte batek egurra ematen dit lasterketa laburretan, 10-15 kilometroko probetan. Proba luzeagoetan erresistentziarako gaitasuna sartzen da jokoan, eta 35 urterekin oreka bat duzu, batez ere buruan. Erritmo egoki bat eramaten asmatzea ez da

"ANDOAINGO ADARRA TRAIL LASTERKETAN IRABAZLE HELMUGARATZEA BIKAINA IZAN ZEN"



Asier Rajado aurreko asteburuan, Aiurriko egoitzan. AIURRI

erraza, eta hori urteekin ikasten dela esango nuke.

Zegama-Aizkorri mendi maratokia korritu al duzu noizbait?

Ez, ez dut zorte hori izan momentuz, ea posible den hurrengo urteren batean. Egin nahi dut, baina dortsala lortzea oso zaila da, bai zozketa bidez, baita eliteko korrikalaria izanda ere. Antzera jarraitu nahi nuke, 25 eta 67 kilometro arteko probak egiten. Gehienez ultra maratoi bat egin urteko.

Euskal Herriko Mendi erronkan, Leitzan, bikain aritu zinen, bigarren sailkatu zinen.

Ondo atera zen, eta gustura.

Nola prestatzen,osatzen da 67 kilometro ultra maratoi bat?

Gorputza kontrolatu behar da, erritmo egokian joan, zazpi orduko ahalegin gogorra baita. 45. kilometroraino gordetzen joan behar duzu, eta hortik aurrera, indarra baduzu, ahal dena estutu. Garbi eduki behar da ezin duzula zure muga pasa, eman dezakezuna baino biziago joan, hori egiten baduzu proba ez bukatzeko arriskua handia delako. 45. kilometrora justu antzean iristen bazara, akabo, oraindik 22 kilometro luze fal-

ta zaizkizulako helmugaraino. Ondo jan behar da, ondo edan, tripako mina saihestu. Entrenamendu asko eta onak egiten ditugu, hilabete askotan, eta burua ere bere tokian eduki behar da. Pentsatzekoa da proba hori egiteko lehiatzen bazara, prestatuta zaudela. Zorte puntu bat ere eduki behar da, noski.

Zer da garrantzitsuagoa une kritikoetan, burua edo hankak?

Biak. Buruak asko agintzen du, baina buruak aurrera esaten badizu, eta hankak ez, zaila aurrera egitea. Alderantziz ere bai, hankak indartsu badituzu, baino burua ezkor, zaila da.

Zorte on, ea elkarrizketa hau Zegama-Aizkorri lasterketako antolatzaileen begietara iristen den, eta tokitxo bat egiten dizuten etorkizunean.

Polita litzateke!

"KIROLA EGITEAK PATXADA HANDIA EMATEN DIZU EGUNEROKOAN"

IRITZIA



ANDONI URBISTONDO URNIETA

Pogi, Van Aert eta besteak

Tourreko lehen herenak Pogacarren faboritismoa berretsi du, eta Van Aert-ek bakarrik egin dio itzala; UAE sendo ari da, momentuz, eta ez zaio zirrikiturik ikusten, baina Alpeek zeresana eman dezakete, batez ere bero handia izango delako

Lehen herena bete du Tourrak, eta lehen atsedean eguna betetzen ari da tropela Morzine inguruan. Zer ikusi da lehen 10 egunetan? Zer ikusiko da aste honetan? Eta hurrengoan, Pirinioetan?

Futurologo ezin izan, eta orain arte gertatutakoa aztertu eta sor daitezkeen egoerak aurreikusteko ariketa izango da honakoa. Kale egiteko arrisku handiarekin, kirola diziplina ez zehatza delako.

Zer ikusi da lehen 10 egunetan? Pogacarrek bere faboritismoa berretsi duela. Bikain ekin zion Kopengheneko erlojupekoarekin. Bikain jardun Arenberg-eko harbideetan. Etapa pare bat irabazi ditu, bigarrena mendatean bukatzen zen lehen etapan, Le Planche des Belles Filles-en, eta Vingegaard nahiko paretsu badabil ere, lidergoa estutasun handirik pasa gabe kudeatzen ari dela dirudi. Besteak beste UAE taldea bikain dabil delako.

Laengen norvegiarra galdu dute COVID-agatik, eta Hirschi ezinean doa, belauneko arazoekin, baina McNulty, Marc Soler eta Rafal Majka bikain ari dira. Zenbaitzuren ustez berekoi antzean ari dira bai Pogi eta baita UAE ere, garaipenak pilotzeko desioaren baitan taldea erretzen. Tourra bukatzeko bi aste falta dira, eta ikuskizun hala den. Kontua da oso zorrotz zaintzen ari direla ihesaldi guztiak, erritmo itoa jarri mendateetan, eta horrek oilarren mugimendu arriskua ezeztatzen du.

Wout Van Aert da Pogacarri itzal egin dion ziklista bakarra. Orotariko ziklista, beste garai batekoa, bi etapa irabazi ditu, biak esprintean.

Bata esprint handi batean, bestea lau kilometroko alda baten bukaeran.

Erregularitasunaren maillot berdea ere ziurtatua dauka, eta erakustaldiz erakustaldi aritu da lehen hamar egunetan. Izan ordekan, muinoetan, harbidean, bakarrik, kideei laguntzen... Sentsazioa dago han eta hemen Jumbo taldea ez dela flandestarraren kemena baliatzen ari, haren zubi lana bilatzeko zereginen kamuts dabil zela. Izan liteke Roglic bere onenean ez dagoelako izatea, harbidean jausi ostean, baina saiatu beharko lukete nola edo hala UA Eren hegemonia hori hausten.

Eta zer gerta liteke aste honetan? Gauza bat da hitz hauen egileak, txirrindularitza zaleak etapa mitikoak, historikoak, urruneko erasoak, etapa hasieratik hankaz gora jarriko duten eraso festa nahi izatea. Ez da erraza Tourrak oso azkar egin dituelako lehen hamar egunak, eta horrek denei eragiten die. Jendea justu antzean doala agerikoa izaten hasi da, eta eusteko komeriak badaude, nola eraso egin? Hanka zuztarretako mina min gaiztoa da, eta jasaten ari direnek ez diote buelta emango dagoeneko, eguneroko zigorrak ez duelako barkatzen. Eta beste egoera garrantzitsu bat. Top 10ean daudenak lortutakoa gordetzen saiatuko dira gehiago aurrerantzean, lortutako hori hobetzen baino. Alegia, arriskatzeko garesti izan daitekeela. Litekeena da Alpeetan lasterketa blokeatu samar joatea. Jumbok, INEOSek eta BORak dute azken hitza.

Eta zer dago, bada, aste honetan? Hasteko, xehetasun garrantzitsuak. Bero handia. Handia eta itogarria. Eta Pogacar ez da ondo moldatzen beroarekin.

Datorrena datorrela, Aiurri. eus webgunean kontatuko dugu.



Dozenaka laun elkartu zen Goiburuko pilotalekuan. AIURRI



Pilotariak, antolatzaileak eta omenduak elkarrekin, sari banaketa ekitaldiaren amaieran. AIURRI



Giro polita sortu zen Goiburun, ostiral gauean. AIURRI

Pilota gau eder bezain hunkigarria

Lontxo Santa Cruz eta Jon Jauregi izan dira aurtengo txapeldunak. Lagunarteko giro aparta izan zen ostiral gauean. Antolatzaileek, gainera, omenaldi hunkigarria eskaini zieten dagoeneko gure artean ez diren Ramon Jauregi eta Gurrutxaga pilotazaleei

Xabier Lasa ANDOAIN

Eskuiz Binakako XVI. Pilota Txapelketako azken bi partidak jokatu ziren Goiburu auzoko frontoian, ostiral gauean. Pilota-giro aparta bizitu zuten bertaratu zirenek, eta Santa Cruzek eta Jauregik eskuratu zuten txapela, finalean Gaztañaga anaiei 22-17 irabazi eta gero. Finalean, batek, eskarmentu handiko Lontxo Santa Cruz eta Jon Jauregi kan txaratu ziren, faborito gisa agertu ere, lehendik ere bai baitakite zer den halako egoeretan jokatzea. Aurrez-aurre, berriaz, 14 eta 17 urteko bi pilotari gazte-gazte. Zaildutako pilotarien antzera jokatu zuten gaztañagata-

rrek, Jonek eta Mikelek, eta behin baino gehiagotan “zaharrak” gaudituz zitzaketen tankera hartu zuten. Baina azkenean, “zaharren” eskarmentua nagusitu zen.

Aurten hogei bikotek hartu dute parte Gaztetxeak Gazteleku Pilota Eskolaren laguntzarekin antolatzen duen txapelketan. Hiru datu, gutxienik, nabarmen daitezke. Lehenik, parte-hartzaile gazteen nagusitasuna, finaleko lau bikoteen adina ikusi besterik ez baitago: hiru bikote 20 urteren jiran, eta laugarrena, 30era ez da iristen. Bigarren datua, Andoainen esku pilotarako dagoen zaletasuna da, Gazteleku Pilota Eskolaren ahalegin

eskergetzari esker, batik bat. Eta azkenik, kirolaz gaindiko hausnarketa ere eragin dezake txapelketak: zenbateko garrantzia daukaten halako herri txapelketek, herrigintzan eta herritarren kohesioan.

Zendutako bi zaletu, gogoan

Finala jokatu ondorengo sariemate ekitaldian, 2021ean zendu ziren Ramon Jauregi eta Iñaki Gurrutxaga zaletuei omenaldi xumea eskaini zieten. Izan ere, biak pilotazale amorratuak izanik, ez zuten hutsik egin urtez urte jokaturako txapelketetan. Jauregi eta Gurrutxagaren familiak bertan ziren.



Jon Jauregi eta Lontxo Santa Cruz finalean nagusitu ziren Mikel eta Julen Gaztañaga anaien aurka (22-17). AIURRI



Jon Irazu eta Axier Iraola bikoteak Eneko Uria eta Beñat Salbadorren aurka jokatu zuten, 3-4. postua erabakitzeko partidari (22-19). **AIURRI**



Goian, ezker-eskuin: 11. Beñat Uria, 8. Eneko Pires, 4. Oier Jauregi, 12. Xabat Jauregi, 14. Asier Garcia, 9. Aratz Lopez, 18. Ibai Miguel, 10. Jon Areizaga eta 25. Aimar Telletxea. Behean, ezker-eskuin: 6. Aitor Bekarte, 1. Unai Barberena, 2. Unai Ulanga, 7. Jokin Valencia, 17. Eñaut Arnaiz, 3. Egoitz Goñi, 19. Iker Brosa eta 5. Aimar Suarez. IDOIA GONZALEZ

Euskalduna SD B-16 lagun taldea, Donosti Cup txapelketan nagusi

Estatuko zein nazioarteko taldeen aurka lehiatu dira, eta azkenerako txapelketa irabazi dute. Aipagarria da talde honek zelaian eta zelaitik kanpo erakutsi duen errespetua eta laguntasuna

Idoia Gonzalez URNIETA

Donosti Cup 2022 nazioarteko futbol txapelketaren 30. edizioa biribila izan da Euskalduna SDko B16 lagun taldearentzat. Beren mailako «Europa League»ko txapeldunak izan dira, finalean Maison-Alfort FC talde frantse-

sari Donostiako Matigoxotegi futbol zelaian jokatuako partidu ikusgarri eta zirraragarri batean 3-1 nagusitu ostean.

Bikain eta kementsu aritu dira hamazazpi lagun hauek osatutako taldea: 1. Unai Barberena, 2. Unai Ulanga, 3. Egoitz

Goñi, 4. Oier Jauregi, 5. Aimar Suarez, 6. Aitor Bekarte, 7. Jokin Valencia, 8. Eneko Pires, 9. Aratz Lopez, 10. Jon Areizaga, 11. Beñat Uria, 12. Xabat Jauregi, 14. Asier García, 17. Eñaut Arnaiz, 18. Ibai Miguel, 19. Iker Brosa eta 25. Aimar Telletxea.



Irabazleen kopa altza zuten unea. IDOIA GONZALEZ

Entrenatzaile eta delegatu gisa, Andoni Azpiroz, Xabier Lopez eta Josu Pires aritu dira. Ekipo bikaina!

Egunez egun, taldea sendotzen joan zen eta lehen fasean, ondo eta txukun ibili arren, emaitzak ez ziren aldekoak izan, ezta espero zirenak ere, baina ilusioa galdu gabe eta gogotsu ekin zioten bigarren faseari, «Europa League» lehiaketari.

Hemen, eta lehen fasearen aldean, aurrera jarraitzeko irabaztea zuten aukera bakarra, eta hori egin du lagun kuadrilla honek, pausoz pauso eta egunetik egunera jokoa hobetzen, azken garaipena lortu arte, penaltietan erabaki ziren hiru partidu barne. Estatuko zein nazioarteko taldeen aurka lehiatu dira. Esaterako, Madrilgo FDE CD, Kataluñaiko Catalunya Set 11, Frantziako Maison Alfort FC, Washington National Knights, Lleidako LSA, Andorrako Tecnifut edota Estatu Batuetako ISC Team taldeak izan dituzte aurrez aurre.

Interesgarria eta aberatsa benetan kulturartekotasuna, eta batez ere talde honek zelaian eta zelaitik kanpo erakutsi dituen errespetua eta laguntasuna, azken finean, horrek egin dituen handi eta indartsu, hasiera batean ametsa zena errealitatea bihurtuz eta garaipen garrantzitsu hau Andoainera ekarriaz. Esperientzia polita eta hunkigarria beraz, kirola eta bereziki futbola maite duten gazte hauek bizi dutena aste intentsu honetan, non kirola eta adiskidetasuna uztartu dituzten familia eta lagunartean, eta noski, zaleak alde batera utzi gabe, hortxe egon dira, partidu guztiei leialki jarraitu baitie.

Zorionak, mutilak, gozatu momentua eta jarraitu horrela!

**EGUNETIK EGUNERA
JOKOA HOBETZEN
JOAN ZIREN, AZKEN
GARAIPENA LORTU
ARTE**



FRANTZIAKO TOURRA

AIURRI.EUS

@aiurri



HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 14

ANDOAIN Kontzertua

"Limonos de oro" biraren barnean, Izarok emanaldi akustikoa egingo du Otietan. Emanaldia ikusteko gonbidapena behar da, baina azkar batean agortu ziren sarrera guztiak. **Bus zerbitzua ipiniko du Udalak.** 19:00, Otietan. Dohainik.

OSTIRALA 15

URNIETA Lehiaketa

Lehen eskultura lehiaketa martxan dago, eta izen-ematea aurki amaituko da. Lehiaketaren gaia "Emakumeei aitortza zaintzen eremuan egindako lanarengatik" da. Oinarriak Urnieta.eus gunean aurki daitezke.

Azken eguna: Uztailak 15.

ANDOAIN Antzerkia

"Despotorre" monologoak Ane Lindane eta Raquel Torresen eskutik. Gaztetxeko 3x3 Street basket txapelketaren ostean izango da. Kirol jarduerak eta umorea, beraz, ostiral honetan. 17:00-21:00 Basket partidak. 22:30 "Despotorre". 22:30, **Gaztetxea. 5 euro.**



"Akabo" kale antzerkia. Uztailak 16, larunbata. 20:00, Goikoplaza. BARSANTI

ANDOAIN Kalegiroan zikloa, hurrengo egunetan

Urtz taldearen kontzertua. Uztailak 23, larunbata. 22:00, Goiburu. URTZ

EUSKARALDIAREN TXOKOA



Hitzorduak udako festetan

Andoainin Euskaraldiaren aurkezpena egin zen joan zen ekainaren 28an, Udalak eta Bazkunak Bastero Kulturgunean antolatu zuten ekitaldian. Berrikuntza modura, Euskaraldiaren Txokoa antolatu da udaberriko eta udako jaiei begira. Euskararen transmisioan haurrak eta gurasoak ezinbestekoak dira, eta hori dela eta Andoaingo gaztetxoek gustuko jarduerak burutzen ari da. Santakruzetara abiatu zen maiatzaren 1ean, eta jarraipena izan zuen Kaletxikiko jailetan. Hirugarren txokoa Karrikan egokitu zuten, aurreko larunbatean. Zuhaitzek

eskainitako gerizpean, haur ugari elkartu zen Euskaraldiko marrazkien eta jolasen inguruan parte hartzeko.

Ekimenak segida izango du udako gainerako jailetan. Etxeberrietan uztailaren 29an izango da, ostiralarekin. 17:30ean hasiko da ekimena, eta ondoren txokolate-jatea eskainiko du Kotoi elkarteak. Goiburun jaiak izango dira abuztuaren hasieran eta han ere Euskaraldiak izango du bere txokoa. Abuztuaren 6an izango da, larunbatearekin, arratsaldeko 17:00etan hasita. Buruntzan San Roke egunean izango du jarraipena, ekimenak.

ANDOAININGO EUSKARALDIA BATZORDEA IRAILEAN ABIATUKO DA

Parte hartu nahi al duzu?
IDATZIGUZU andoain@euskaraldia.eus e-postara





Begoña Ubillos eta Ainara de Miguel, Urnietako EH Bilduko ordezkariak. AIURRI

Saletxeberri Berrikoen harira agerraldia deitu zuen EH Bilduk

Erantzukizuna Udal gobernu ardurak dituen EAJ-PNVrena dela diote

Erredakzioa URNIETA

Ergoien auzoan, Andoain, Urnietako Goiburu aldera igotzeko bidegurutzean, Saletxeberri Berri eraikina aurkitzen da. Etxebizitza multzo bat da, berez hotel edo antzeko erabilera izateko baimena duena. Baina ez, ofizialki, bertan bizitzeko. Errealitate, ordea, bestelakoa da eta bertan askotariko familiak bizi dira. Eta beste hainbat espazio hutsik daude. Udaberriari hasita, berta bizi diren bizilagunek pankartaz josi zuten kanpoaldea. Ur hornidura sarea berrezartzea eskatzearekin batera, Urnietako udalari zuzendutako mezuak zabaldu zituzten. Berriki, pankartak berriki dituzte eta Urnietako Udalean ordezkari zuten EAJ-PNV, EH Bildu eta PSE-EE alderdiak zuzen-zuzenean aipatu dituzte. Hori ikusita, EH Bilduk agerraldia deitu zuen astelehen arratsaldean.

EH Bilduren erantzuna

"Herriari gure jarreraren berri ematea erabaki dugu, duela 21 urte egin zen legez kanpoko ekintza baten aurrean". Esaldi horrekin hasiera eman zioten adierazpenari. Horrekin batera, bi mezu argi utzi nahi izan zituzten. Lehena Saletxeberri

"URNIETAKO EH BILDUK EZ DU SALETXEBERRIREN GAINEAN INOLAKO ERANTZUKIZUNIK"

Berriki inor ez dela eurekin harremanetan jarri "beren jarrerari buruz galdetzeko". Bigarrena Urnietako EH Bilduk "Saletxeberri Berriren gainean inolako erantzukizunik ez duela". Eta zuzen-zuzenean EAJ-PNV egiten dute egoeraren erantzule: "Duela 21 urte EAJk bere kabuz hartu zuen erabakia, eta ez du publikoki onartu zuzentzeko gai ez den legezkontrakotasuna. Gaur egun, EAJ gehiengo absolutuan dago eta ez du oposizioarekin ezertarako kontatu pankartak agertu arte".

Inguru hura, indarrean diren arau subsidiarioen arabera, ez da etxebizitzarako gunea. Eta zehaztapen bat egin nahi izan du EH Bilduk: "Saletxeberri Berriko herritar guztiek erosketaren lehen egunetik ezagutzen zuten epai bat dago. Legearen arabera, hirugarren sektoreko erabilera bat eman diezaiokigu gunen horri, hala nola: hotela, jatetxea... Herritar orok egiazta dezake hori Plan Orokorrean. Urnietako komunitate osoarentzat positiboak diren legezko erabakiak baino ez ditu babes-tuko oposizioak". Urnietako EH Bilduk nahi duenari biltzeko gonbidapena luzatu die, "gure jarrera zein den azaltzeko".

"NAHI DUENARI BILTZEKO GONBITEA LUZATZEN DIOGU, GURE JARRERA ZEIN DEN AZALTZEKO"

Buruntzaldea IKT kluban izena emateko epea, zabalik

Denboraldia irailaren 19ko astean hasiko da. Master taldea delakoa, berriz, urriaren 3an

Erredakzioa ANDOAIN

Eskaintza zabala prest du Buruntzaldea IKT klubak: 2013 eta 2014an jaiotako haurrei zuzendutako igeriketa, 2009 eta 2012 arteko federatu mailako igeriketa, lehiarik gabeko parte-hartze igeriketa, igeriketa egokitua eta baita master delako igeriketa.

Informazio osagarria emateko prest dago kluba

Egunak, ordutegiak eta xehetasun gehienak dagoeneko lotuta daude. Ikasturte berriko eskaintzari buruzko zalantzak argitzeko prest daude igeriketa klubeak. Telefono zenbakia honakoa da: 696 506 632. Whatsapp bidez ere erantzuteko prest daude. E-posta, berriz, hau da: info@buruntzaldeaikt.eus helbide elektronikoa.

Informazio gehiago eskuragarri dago www.buruntzaldeaikt.eus/2223izenematea.html webgunean.

IKASTURTE BERRIARI BEGIRA EGUNAK, ORDUTEGIAK ETA XEHETASUN GEHIENAK LOTUTA DAUDE

San Fermin txapelketako finala ikusteko sarrerak

Erremonteko finalera iritsi dira Ansa-Azpiroz eta Ezkurra-Juanenea bikoteak

Erredakzioa URNIETA

Galarretan izango da norgehiagoka, ostiralean, arratsaldeko 18:00tatik aurrera. Aiurrik finala ikusteko sarrerak zozkatuko ditu. Zozketan parte hartzeko "Erremonte Zozketa" mezua bidali behar da 619 16 35 37 telefono zenbakira; astekaria@aiurri.eus e-postara edota Aiurriklik instagram kontura ere idatzi daiteke. Saridunek ostiralean 09:00ak eta 14:00ak bitartean jaso beharko dituzte sarrerak.

Ansa urnietarra, lehen txapelaren bila

Pilota aukeraketan adierazpenak egin zituzten. Ansa eta Azpiroz pilota motelen bila irten ziren lehendabizi: "Bi pilota motelak dira eta bat biziagoa. Euren bi pilotak oso okerrak iruditu zaizkigu. Seguruenik Aritzek zabalitik atera nahiko du, ahalik eta min gehien egiten saiatzeko".

Ezkurak eta Juaneneak argi adierazi zuten estrategia nagusia: "Imanol momentu oso onean dago eta horregatik deseroso sentiarazi nahi dugu. Pilota okerragoarekin jokua nahasteko aukera gehiago ditugu. Hala ere, ez dira pilota biziak. Dene-tarik zegoen eta alde horretatik ez dugu kexarik".

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Zorionak Onintza
Onintzak abuztuaren 2an 6 urte egingo ditu. Ondo-ondo pasa eta muxuak etxekoan partez.



ANDOAIN
Zorionak Nere
Iritsi da zure 7. urtebetetzea. Festa izugarria egingo dugu! Maite zaitugu. Anje, Anne eta etxekoak.



ANDOAIN
Zorionak Libe eta Julen!
Uztailaren 5ean 11 urte bete dituzte!! Jarraitu dezazuela orain arte bezain jator! Muxu pilla etxeko guztien partez!



ANDOAIN
Zorionak Ixaso eta Eñaut!
Ixaso Berruetak hilaren 23an 6 urte beteko ditu, Eñaut Berruetak 27n 10 urte. Zorionak eta ondo pasa oporretan. Muxu handiak etxekoan partetik.



ANDOAIN
Zorionak Ane
Uztailaren azken egunean zure 9. urtebetzea ospatuko dugu! Aurtengoa ere super egun bat izan dadila! Muxuak etxeko guztien partez!

Urte askotarako

Whatsapp bidez: 619 16 35 37

MERKATU-TXIKIA

IRAKASKUNTZA

Ingelesko klase partikularrak ematen dituen norbait behar dut 9-11 urte bitarteko haurrei irailetik aurrera eskolak etxean emateko. Informazio gehiago: **650 34 11 08** telefonoan.

SALGAI

Antiescaras koltxoia salgai. Tel.: **660 235 259**.



Urnietako
udala



**Mendira,
hondartzara,
festara...
Uda honetan
ere zurekin
eramango
gaituzu**

